

EUSKAL BASERRIAREN HISTORIA EZAGUTU IGARTUBEITI MUSEOAN

Igartubeiti baserri-museoak euskal baserriaren historia ezagutzeko aukera ematen du. XVI. mendeko dolare bat dauka.

Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserria (Gipuzkoa) XVI. mendean erdialdean eraiki zuten, eta euskal baserriaren urrezko aroaren adibide paregabea da. Jatorrizko egurrezko egiturak bikain iraun izanak eta barruan duen sagardo dolare handiak Euskal Herriko baserriarik interesgarrienetakoa bihurtu dute Igartubeiti. Dolarea ere XVI. mendekoa da.

Igartubeitik balio kultural eta arkitektoniko izugarria dauka. Eraikinaren barnealdea eta aurrealdea haritz zurezkoak dira. Baserria zaharberritu zutenean, ahalik eta jatorrizko pieza gehien kontserbatu nahi izan zituzten, eta zutabeak, zoruak eta habeak jatorrizkoak dira. Jatorrizkoa da museoko elementurik deigarrienetakoa bat ere: baserriaren ganbararen aurki daitekeen dolarea. Dolareak baldintzatzen ditu eraikinaren dimentsioak, hamar metroko zutabe batek gidatzen baitu.

BISITAK ETA JARDUERAK

Igartubeiti baserri-museoan dagoen interpretazio zentroak euskal baserriaren historia biltzen du, mila urtetik gorakoa. Horrela, Igartubeitin bizi izandako familietako senideen eta bizi-lagunen ahotsen bidez, aukera ematen du antzinako baserrien hazkundera eta bilakaera, biztanleen bizimodua eta lanak, elkarren arteko harremanak, sinesmenak, ekolozpena, elikadura, dibertsioak eta sufrimenduak ezagutzeko.

Interpretazio zentroan, Igartubeitira egiten diren bisitak kudeatzen dira, eta baserriaren historiaren inguruko jarduerak antolatzen dira. Besteak beste, barrikote festa egiten dute, sagardoaren kulturaren inguruko tradizioak zaharrene-tako bat berreskuratzeko. Garai batean, nekazaritza munduan barrikote festa izaten baitzen sagardogintzako lan guztiak amaitu ondorengo jala.

Taloak eta sagar zukua egiteko talberak ere izaten dira. Halaber,



Igartubeiti baserri-museoa inguru eder batean dago, Ezkio-itsason. ANE GARMENDIA / GODEFRIDO HITZA

Igartubeiti baserria eta sagardotegia esperientziak ere goza daitezke: Igartubeitiko dolarea ezagutu ondoren, inguruko sagardotegi bateko sagardoak dasta daitezke, sagardogileak gidatuta, eta otordu bat egin sagardotegiko menu tradizionalarekin.

Igartubeiti baserri-museoa familiarekin edo lagunekin bisita daiteke, bai eta nork bere kontura ere. Urriaren 31ra arte, museoa asteartetik larunbatera irekita egongo da, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Igan-

dean, berriz, 10:00etatik 14:00etara egongo da zabalik.

Bisita gidatu bat egin nahi izanez gero, gomendatzen da erre-serba aurretik egitea, 943-72 51 07 edo 943-72 29 78 telefono zenbakira deituta edo mezu bat idatzita igartubeiti@gipuzkoa.eus helbide elektronikora.

@ Informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.igartubeitibaserria.eus

TXIMISTA
Sagardotegia

Herrigunean gaude, trenbidearen ondoan !!!

TXOTX

bertako sagardoaren ekoizleak

Gudarien etorbidea 2. ORDIZIA
www.tximistasagardotegia.com
tximistasagardotegia@gmail.com

943-88 11 28

GIPUZKOAR
SAGARDOAREN
ELKARTEA

Asteazkenetik
larunbatera zabalik,
eguerdian
eta gauean,
uztailera
arte!



R. ZABALA
SINCE MORE THAN 100 YEARS

GARAGARTZA BASERRIA
20192 AIZUA, GIPUZKOA,
BASQUE COUNTRY
info@rcabala.com
PHONE NUMBER:
0034 942 69 87 74
WWW.RCABALA.COM



PRODUCT
MADE IN
EUROPE

